



Azaldittako erromerixia



Herri arteko hartu-emunak ez dira beti samurrak izan. Baiña, hala ta guztiz be, sarrittan pentsau izan dan baiño ugarixiak eta hobiak izan dittugu. Adibideren bat billatuenian, herri-mugetan egitten ziran erromerixetan topau geinke: San Prudentzioko jaixetan, esate baterako, Bergara, Mondrague eta Oñatiko gazterixia alkarketan zan urterto.

Baiña Elorregi auzoko fiesta horrekin batera, bazan jentia izugarri karriaitten eben beste jai bat be: Aurreko Mendixan egitten zan **Azaldittako erromerixa** famaua, jakiña. Lizargaratetik urrin barik dagueen zelai batian, agostuko Andra Marixaren hurrengo domekan, Bergara, Antzuola, Oñati, Legazpi eta inguruetako jente-morduak zelebraitten eben santu bariko ospakizuna. Bueno, baten batek **San Balandran** izena ifiñi otzan erromerixa horri eta zelabaitteko "santutasun" horrekin ezagutu geben urte askuan.

Argazki hau Azaldittan atarata dago 1947-1948 inguruan, gerraoste latzian, eta bertan agerketan diranak ez dira aurreko-mendittarrak, Oñatiko kale inguruak baiño. Horrek erakusten dosku erromerixa horrek izugarritzko tiria euki ebela. Ezkerretik eskumara eta goititik behera horra oñatiarron izenok:

Goiko illaran: Joxe Mari **Erle**, *Kanpantxokua*; Jabier **Aiastui**, *Kale Zaharreko Kurtzekua*; Pedro **Anduaga**, *Goiko Torrekua*; eta Juan **Erostarbe**, *Etxebarrialdekua*.

Erdiko illaran: Joxe Antonio **Aranburu**, *Mendiko Kalekua*; Gillermo **Anduaga**, *Goiko Torrekua*; Felix **Olalde**, *Matingua*; Julian **Biain**, *Kanpantxokua*; eta Balentin **Erle**, hau be *Kanpantxokua*.

Beheko illaran: Anjel **Aranburu**, *Santa Kataliñakua*; Pedro **Anduaga** *Auzotxoko Sokoruenukua*; Antonio **Abaunz**, *Kasablankakua*; eta Justo **Anduaga**, *Auzotxoko Sokoruenukua*.

Dana dala, erromerixa horren gaiñian gauza asko dira jakittia gustauko xakunak: noiz hasi ete zan? noiz arte iraun eben? zeintzuk antolaketan euen? noren kargu egoten zan tabernia? nungo soñujoliak jotzen euen? bakian faten zan fiestiori? Benetan eskerretiko geuke era horretako informaziñua. Eta Azaldittako jai honen inguruko beste fotografixarik baldin badakozue, askoz hobeto.

J. E.

Argazkixa eta informaziñua Pedro Anduagaren bittartez heldu xaku. Eskerrik asko!



OÑATI
Hormigoiak, S.A.

Zubillaga auzoa, z/g (Olano) Tfnoa: 78 29 12
OÑATI

